

## 1.2.2 GAIAREN LANKETA

### > Familia hiztegia



#### - Elkartu

##### Helburuak

- Familia harremanen hiztegia ikastea eta erabiltzea.

##### Prozedura

- Gelako umeekin bi talde egin eta bakoitzari joko bat eman: B fitxa alde batetik, eta A fitxako zati guztiak moztuta bestetik.
- Azaldu umeei Irati eta Beñaten familia harremanak elkartu behar dituztela eta horretarako argazki bakoitza eta gezi bakoitza bere lekuan kokatu beharko dutela.
- Umeek euren fitxa betetzen dutenean, hezitzaileak zenbat akats dauden esan. Umeak berriro ere saiatu. Umeek familia harreman guztiak ondo kokatu arte egin.
- Behin egin dutenean, galderak egin: nor da Beñaten arreba? Eta Elenaren semea?

##### Oharra

- Komeni da jolasa plastifikatzea; bai A fitxa, baita B fitxa ere. Horretaz gain, B fitxako hutsuneetan eta A fitxako argazkietan eta geizietan belkroa jartzea egokia litzateke.